




## **DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA**

### **“2.2. HIRIGINTZA ESPARRUEN (AU) ETA NATURA ESPARRUEN (AN) HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK” DOKUMENTUA**

Laugarren Liburua  
**ANTIGUO-ONDARRETA (AO)**

**TESTU BATEGINA**  
(Behin betiko onarpena: 2010/06/25)

**PLAN OROKORRAREN BULEGOA**

## **DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA**

### **"2.2. HIRIGINTZA ESPARRUEN (AU) ETA ESPARRU NATURALEN (AN) HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK" DOKUMENTUA.**

Laugarren liburua  
**ANTIGUO-ONDARRETA (AO)**

**TESTU BATEGINA**  
(Behin betiko onarpena: 2010/06/25)

## TALDE IDAZLEA

Santiago Peñalba Garmendia. Arkitektoa.  
Manu Arruabarrena Florez. Arkitektoa.  
Mikel Iriondo Iturrioz. Abokatua.  
Loly Sierra Agüero. Geografoa.  
Pilar Amenabar Zabala. Arkitektoa.  
Xabier Aguirre Alzuru. Arkitektoa.  
David Rebollo Aguayo. Geografoa.  
Laura Muguerza Montero. Ekonomialaria.  
Narciso Iglesias Medrano. (Endara Ingenieros Asociados, SL).  
Iñaki Urrizalki Oroz. Biologoa (Ekolur, SL).  
Iñaki Oñate Lizarralde. Delineazioa.  
Carlos Martinez de Arespe. Delineazioa.  
Elisa Romay Busto. Mekanografia eta edizioa.

## LAGUNTZAILEAK

- \* Hirigintza Saila.
- \* Mugikortasuna, garraioa:
  - Donostiako Udaleko Mugikortasun Zuzendaritza
    - . José Antonio Arrate, Mugikortasuneko zuzendaria.
    - . Iosu Benaito Villagarcía, Mugikortasun Atal Teknikoko burua.
  - ETT, SA (Equipo de Técnicos en Transporte y Territorio, SA).
    - . Pedro Puig-Pey, bide, ubide eta portuetako ingeniaria.
    - . Jaime Aldama, bide, ubide eta portuetako ingeniaria.
    - . Manuel Orts, garraio-ereduetako teknikaria.
    - . Enrique De Diego, ekonomia-zientzietako lizentziaduna
    - . Diego Fernández, bide, ubide eta portuetako ingeniaria.
    - . Iosu Laguardia, arkitektoa.
    - . Pedro Gálvez, delineatzaile proiektugilea
    - . Ricardo Lobo, ingeniari kartografoa
  - Miguel Angel López Palancar, bide, ubide eta portuetako ingeniaria (CINSA. EP taldea).
- \* Zerbitzu-azpiegiturak:

Miguel Angel López Palancar, bide, ubide eta portuetako ingeniaria (TEKOLUR, SL).
- \* Gizarte, hirigintza eta ekonomiaren alorreko informazioa eta diagnostikoa:
  - Jesús Ureta Marcos. Soziologoa.
  - Cristina Landart Meslet (Donostiako Udaleko Programakuntzako, Azterlanetako eta Aurrekontuetako zuzendaria).
  - Lourdes Berasarte Yarzabal (Donostiako Udaleko Programakuntzako, Azterlanetako eta Aurrekontuetako Saila).

- Ana Bernal Ruíz de Oña (URBEAR, CB). Geografoa.
  - María Arrillaga Igarzabal (URBEAR, CB). Geografoa.
  - Begoña Andueza San Martín. Geografoa.
  - Nigel Ariste James Gibb. Arkitekto tekniko.
  - Enrique Munoa Fagoaga. Arkitektoa.
- \* Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana:
- Ekolur, SL.
  - Tomás Aranburu Calafel. Nekazaritzako ingeniari tekniko.
- \* Kultura-ondarea:
- Luis Sesé Madrazo. Arkitektoa.
  - Blas Urbizu Zabaleta. Arkitektoa (ANAN, SC).
- \* Udal-kartografia digitalari buruz indarrean dagoen plangintza iraultzea:
- Roberto Pastor Remiro
  - SGS.Map.
- \* Delineazioa:
- Juan Ignacio Cortés Arzallus.
  - M<sup>a</sup> José Fernández Calonge.

### LANEN ZUZENDARITZA

Proiektu hau egiteko lanak Donostiako Udalaren Hirigintza Sailaren zuzendaritzapean egin dira. Jorge Letamendia Belzunce jauna da Sail horretako zinegotzi ordezkaria. Lan hauen zuzendaritza tekniko, berriz, Iñaki Atxukarro Arruabarrena jaunaren eta David Rebollo Aguayo jaunaren esku izan da.

## **AURKIBIDE OROKORRA**

### **"1. MEMORIA" DOKUMENTUA.**

- "1.1. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUA ETA HORI GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA".
- "1.2. INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA".

### **"2. HIRIGINTZA ARAUAK" DOKUMENTUA.**

- "2.1. HIRIGINTZA ARAU OROKORRAK".
- "2.2. HIRIGINTZA ESPARRUEN (AU) ETA ESPARRU NATURALEN (AN)  
HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK".**

### **"3. KATALOGOA" DOKUMENTUA**

- "4. EKONOMIAREN ETA FINANTZEN ALDETIK DUEN BIDERAGARRITASUNAREN  
AZTERKETA. JARDUN PROGRAMA".**

### **"5. PLANOAK" DOKUMENTUA.**

## **AURKIBIDE OROKORRA**

### LEHEN LIBURUA

Altzako (AL) A.U.en Arau Partikularrak

### BIGARREN LIBURUA

"Amara Berri" (AM) A.U.en Arau Partikularrak

### HIRUGARREN LIBURUA

"Añorga" (AÑ) A.U.en Arau Partikularrak

### LAUGARREN LIBURUA

"Antiguu-Ondarreta" (AO) A.U.en Arau Partikularrak

### BOSGARREN LIBURUA

"Ategorrieta-Ulia" (AU) A.U.en Arau Partikularrak

### SEIGARREN LIBURUA

"Aiete" (AY) A.U.en Arau Partikularrak

### ZAZPIGARREN LIBURUA

"Erdialdea" (CE) A.U.en Arau Partikularrak

### ZORTZIGARREN LIBURUA

"Egia" (EG) A.U.en Arau Partikularrak

### BEDERATZIGARREN LIBURUA

"Gros" (GR) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMARGARREN LIBURUA

"Ibaeta" (IB) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMAIKAGARREN LIBURUA

"Igeldo" (IG) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMABIGARREN LIBURUA

"Intxaurrondo" (IN) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMAHIRUGARREN LIBURUA

"Loiola" (LO) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMALAU GARREN LIBURUA

"Martutene" (MA) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMABOSGARREN LIBURUA

"Mirakruz-Bidebieta" (MB) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMASEIGARREN LIBURUA

"Miramon-Zorroaga" (MZ) A.U.en Arau Partikularrak

### HAMAZAZPIGARREN LIBURUA

"Zubieta" (ZU) A.U.en Arau Partikularrak

### HEMEZORTZIGARREN LIBURUA

"Lurzoru urbanizazina" (LUE) A.U.en Arau Partikularrak

**AURKIBIDEA:**

Or.

|              |                                           |    |
|--------------|-------------------------------------------|----|
| - A.U. AO.01 | "Miramar-Ondarreta" .....                 | 1  |
| - A.U. AO.02 | "Antigua" .....                           | 6  |
| - A.U. AO.03 | "Apaiztegia" .....                        | 12 |
| - A.U. AO.04 | "Txantxa Erreka" .....                    | 17 |
| - A.U. AO.05 | "Lizarriturri" .....                      | 21 |
| - A.U. AO.06 | "Benta Berri" .....                       | 26 |
| - A.U. AO.07 | "Unibertsitate-campusa, iparraldea" ..... | 30 |
| - A.U. AO.08 | "Ondarretako zabalgunea" .....            | 33 |
| - A.U. AO.09 | "Ondarretako Lorategi Hiria (I)" .....    | 37 |
| - A.U. AO.10 | "Ondarretako Lorategi Hiria (II)" .....   | 44 |
| - A.U. AO.11 | "Miranda Alde" .....                      | 48 |
| - A.U. AO.12 | "Erregenea" .....                         | 52 |
| - A.U. AO.13 | "Satrustegi dorrea" .....                 | 59 |
| - A.U. AO.14 | "Itsasargiko errepidea" .....             | 63 |
| - A.U. AO.15 | "Jolas-parkea" .....                      | 70 |

PLANOAK (1/2.000 eskala): 1/2.000):

Iparraldea:

1. Gaur egungo egoera. Lurzorua mugatzea (esparruak eta azpiesparruak), sailkatzea eta kategorizatzea.
2. Zonifikazio Globala.
3. Zonifikazio Xehatua.
4. Hirigintza gauzatzeko baldintzak.
5. Kosta Legearen aplikazioa.

Hegoaldea:

1. Gaur egungo egoera. Lurzorua mugatzea (esparruak eta azpiesparruak), sailkatzea eta kategorizatzea.
2. Zonifikazio Globala.
3. Zonifikazio Xehatua.
4. Hirigintza gauzatzeko baldintzak.
5. Kosta Legearen aplikazioa.

## **A.U. "AO.01 MIRAMAR-ONDARRETA" (Antiguu-Ondarreta)**

### **I.- AZALERA ETA MUGAKETA**

Itsasoari begira dago esparrua, Antiguako tuneletik Haizearen Orraziraino luzatzen da eta kostaldeak eta hiri eraikiak mugatzen dute.

95.631 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta bertan daude Miramar parkea, Ondarretako lorategiak, Udal Teniseko instalazioak eta Haizearen Orraziaren pasealekua.

### **II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK**

- \* Esparruak espazio libre gisa dituen ezaugarri orokorrak indartzea. Izan ere, hiri-nukleoan garrantzi berezia du inguruak, ingurumenaren zein paisaiaren ikuspegitik, eta, batez ere, hiriaren itsasoari begira jartzen du.
- \* Era berean, gaur egungo ekipamendu komunitarioaren erabilerak indartu nahi dira, nahiz eta Udalaren Tennis Klubaren kasuan, Kosta Legear ezarritakoari emango zaion lehentasuna.
- \* Miramar Jauregiaren eraikina indartu nahi da, halaber, bai eta Plan Orokor honen Katalogoan barne hartuta dauden eta inguruan dituen eraikinak eta eraikin osagarriak ere.

Jauregiko atezaintza-eraikinari helduta (Matia kalearen ondoan dago), berau eragiten duen bide-proiektua gauzatzean leku seguru batera eramango da, obra amaitu arte.

- \* Mikeleteen pasealekuko lehen zatiaren ibilbidea aldatuko da. Izan ere, Ondarreta plazaren eta Pio Baroja pasealekuaren arteko konexioa finkatu eta lehenetsi nahi da. Konexio hori aldatuko den zatiarekin lotuta egongo da.
- \* Itsas eta lehorreko jabari publikoa, eta honekin mugatzen duten esparru guztietan edozein esku-hartze (obrak edo eraikuntzak gauzatzeko helburuarekin, edo erabilerak eta jarduerak garatzeko helburuarekin), dagokion babeseko zortasun-zona barne hartuta, indarrean dagoen 1988ko uztailaren 28ko Kosta Legear eta bere Araudian xedatutakora egokituko da.

Helburu horiekin kontuan hartuko dira Arau Partikular honetako "5. Kosta Legearren Aplikazioa" planoan grafiatutako jabari publiko hori mugatzea, itsasoaren erribera eta babeseko zortasun-zona.

Babeseko zortasun-zona horrek 20 metroko sakontasunean eragiten du, itsasoaren erriberatik neurtuta.



## A.U. "AO.01" (Jarr.)

### III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala

##### 1.1.- "B.20 / AO.01 – Hirugarren sektoreko erabilera" izeneko zona (Azalera: 3.138 m<sup>2</sup>)

###### A.- Eraikuntzako baldintza orokorrak:

###### a) Hirigintza-eraikigarritasuna

- \* Sestra gainean:..... 4.400 m<sup>2</sup>(s)
- \* Sestrapean (erabilera nagusiak eta osagarriak):... 7.000 m<sup>2</sup>(s)

###### b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak:

- \* Sestra gainean:  
Arau Partikular hauetan (IV. Epigrafe) ezarritako parametroak hartuko dira kontuan, antolamendu xehatua ezarritako mailarekin.
- \* Sestrapean:  
orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitze baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitze baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hirigintza-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.

###### B.- Erabiltzeko baldintza orokorrak.

Erabiltzeko baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ezarritako "B.20" zona globalarenak dira.

##### 1.2.- "F.10/AO.01– Hiri Espazio Libreen Sistema Orokorra" zona (Azalera: 81.457 m<sup>2</sup>)

###### A.- Eraikuntzako baldintza orokorrak:

- \* Esparruan gaur egun dauden eraikuntzak sendotuko dira.
- \* Plan Orokor honetan ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) ezarritako "F.10 Hiri-espazio libreen sistema orokorra" zona globaleko eraikuntzako baldintza orokorrak aplikatuko dira.

###### B.- Erabiltzeko baldintza orokorrak:

Erabiltzeko baldintza orokorrak dira Plan Orokor honetan ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) ezarritako "F.10" zona globalekoak.

## A.U. "AO.01" (Jarr.)

### 1.3.- "E.10/AO.01 – Bide Sistema Orokorra" zona

(Azalera: 11.036 m<sup>2</sup>)

- \* Eraikuntza eta erabiltzeko baldintza orokorrak zona global honetarako ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) Plan honetan ezartzen dira orokorrean.
- \* Mikeleteen pasealekuko lehen zatia aldatzea aurreikusi da, hartara, Ondarreta plazaren eta Pio Baroja pasealekuaren arteko konexioa hobetzeko eta lehenesteko.

### 2.- Hirigintza-sailkapena.

Esparruko lur guztiak hiri-lurzoru gisa sailkatzen dira.

### 3.- Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

Esparruaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehazten da.

## IV.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

### 1.- Kalifikazio xehatua.

#### A.- Zonifikazio xehatua mugatzeko eta antolatutako azpizona xehatuen tipologiak zehazteko baldintzak.

Baldintza horiek Arau Partikular hauetako "3. Zonifikazio Xehatua" planoan biltzen dira.

#### B.- Antolatutako lursailen eraikigarritasun fisikoa.

- \* Oro har, lursailen eraikigarritasun fisikoa izango da lursail horietako bakoitzean gaur egun dauden finkatutako eraikuntzen lerrokaduren eta formaren (solairu-kopurua eta altuera) emaitzazkoa izango.
- \* Mugatutako "b.20" tipologiako lursailari dagokionez, eraikigarritasun fisikoa bat dator "B.20" zona globalerako baimendutako hirigintza-eraikigarritasunarekin.

#### C.- Lursailen eraikuntzaren forma arautzen duten baldintzak. Eraikuntzaren solairu-kopurua eta altuera.

- \* "b.20" tipologiako lursaila:
  - Sestra gainean:
    - . Eraikuntzaren profila: ..... IV
    - . Eraikuntzaren altuera: ..... 14,50 m
  - Sestrapean:

Arau Partikularretan "B.20" zona globalerako (III. epigrafea) ezarritako baldintzak dira.

## A.U. "AO.01" (Jarr.)

- Lursailean proiektatutako eraikuntzaren forma arautzeko baldintzak behin betiko zehazten dituen "Xehetasun Azterlan" bat landu eta onartuko da.

- \* Hirigintza-esparruaren gainerakoa.

Lursail bakoitzean sestra ganean dauden eraikinen eraikuntzaren profila eta altuera finkatzen dira.

### D.- Antolatutako azpizona xehatuak erabiltzeko baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetan, oro har, esparruan antolatutako azpizona xehatueta bakoitzerako ezarri dira baldintza horiek ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua).

## 2.- Hiri-lurzorua kategorizatzea.

- \* Mugatutako "B.20" tipologiako zona globalean dauden lurak, hiri-lurzorua finkatu gabeak dira, eraikigarritasun haztatuaren hazkundeagatik.
- \* Hirigintza Esparru honetako gainerako lur guztiak hiri-lurzorua finkatuak dira.

## V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Arlo honi dagokionean, Plan Orokor honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuetan ezarritakoa jarraituko da.

Testuinguru horretan, beste hainbat gauzaren artean, itsasertza bertan dagoela hartu behar da kontuan eta, horrenbestez, Esparruan eta bere inguruan itsasoko jabaria. Era berean, Plan Orokor honetan aurreikusitako eremu akustikoetan esparrua integrazeari lotutako baldintzak behar bezala hartu behar dira kontuan.

## VI.- ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK

- \* Miramar Jauregia eta bere lorategiak Plan Orokor honen Katalogoan barne hartuta daude, I. mailan.
- \* Haizearen Orraziaren plaza Plan Orokor honen Katalogoan barne hartuta dago, III. mailan.

Aurreko aurreikuspenen jatorria izapidetzen ari den hiriko Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian dago (behin betiko onarpena: 2009ko uztailaren 3a). Horren inguruan, plan berezi horren behin betiko onarpenaren ondorioak hartu beharko dira kontuan.

Interesa duten beste mota bateko ondasunei (naturalak...) dagokienean, gai honetan sustatu beharreko plangintza bereziaren emaitzak hartu beharko dira kontuan.

## **A.U. "AO.01" (Jarr.)**

### **VII.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA**

#### **1.- Urbanizazio-erregimena.**

Ondarreta plaza eta Pio Baroja konektatzeko bide-aldaketa egiteko, urbanizazio-lanen proiektu bat aurkeztuko da eta, horren baitan, Jauregiko atezaintzaren eraikina lekuz aldatu eta berriro kokatzeko lanak barne hartuko dira.

#### **2.- Gauzatze erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.**

- \* Donostiako Udalak finantzatuko du Ondarreta plaza eta Pio Baroja pasealekua konektatzeko bide-aldaketa.
- \* Erabileren haztatze-koefizienteei eta hauen aplikazioari dagokienean, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gaiari lotuta ezarritakoa jarraituko da.

### **VIII.-INGURUMEN ARLOKO NEURRIAK**

Plan honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" dokumentuan jasotako ingurumeneko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira, bai eta bere garapenean sustatu beharreko Udal Ordenantzek zehaztuko dituztenak ere.

### **IX.- GRAFIKOAK**

Arau Partikular hauetan ez da grafikorik sartu.

## A.U. "AO.02 ANTIGUO" (Antiguu-Ondarreta)

### I.- AZALERA ETA MUGAKETA

93.150 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta iparraldetik Zumalakarregi hiribideak mugatzen du eta Apaiztegiko mendi-hegalak ditu hegoaldean.

Osorik beteta dago eta bizitegi-erabilera ematen zaio nagusiki. Auzoko gune garrantzitsua da.

### II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- \* Esparruko eraikuntza-garapenak sendotzea. Ez da eraikigarritasun berririk aurreikusten. Berririk izanez gero, azpieraikitako lursailetan ("a.2 Zabalguneke bizitegi" lursailak) eraikuntza-eskubideak agortu direlako izango da, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasunaren gauzatzearekin arazoak daudelako.

Sestra gaineen eraikitako sabai-azalera areagotzeko aukera eraikuntza-profilak arautuko du, eta esparruan barne hartutako lursail bakoitzarentzat ezartzen den ordenantzak arautuko du eta, horiez gain, Ondare Eraikiaren Katalogoan eta Plan Berezian gaur egungo arkitektura-ondarea babesteko ematen dituen zehaztapen guztiak hartuko dira kontuan.

- \* Lurpeko aparkaleku bat eraikiko da (titulartasun pribatukoa), "Ikuztegia" izeneko lursailean, egoiliarrentzat. Aurretik eragiten zuen Plan Berezian egindako aurreikuspenaren arabera, titulartasun publikoko beste aparkaleku bat egin daiteke, inguruko espazio libreetan, betiere eskariarik badago.

### III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala

1.1.- "A.20 / AO.02 – Zabalguneke bizitegi" zona. (Azalera: 87.425 m<sup>2</sup>)

A.- Eraikuntzako baldintza orokorrak:

a) Hirigintza-eraikigarritasuna

- \* Sestra gaineen:
  - "a.2 Zabalguneke bizitegi" tipologiako lursailetan eta "b.20 Hirugarren sektoreke erabilera" tipologiakoetan, hirigintza-eraikigarritasun arauemailea da Arau Partikular hauetan definitutako eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak aplikatu izanaren emaitza.

## A.U. "AO.02" (Jarr.)

- "a.30.1" lursaila: ..... 2.230 m<sup>2</sup>(s)
- Irabazizko izaera duten gainerako lursailen kasuan, sestra gainerako hirigintza-erakigarritasuna da gaur egungo eraikuntzen formari dagokiona edo Arau Partikular hauetan ezarritako forma berriari dagokiona.

- \* Sestrapean:  
Zona global osoan baimendutako gehieneko hirigintza-erakigarritasuna, bertan sestrapean baimendutako irabazizko izaerako eraikuntza guztiei lotzen zaie, orokorrean ezarritako irizpideekin eta, horri lotuta, Plan Orokor honetako "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) ezarritako irizpideekin bat etorrira.

### b) Eraikuntzaren forma arautzeko parametroak.

- \* Sestra gainean.
  - "a.2 Zabalguneko bizitegi" tipologiako lursailetan eraikuntzako forma da Plan Orokor honetan Hirigintza Arau Orokorrak mota honetako lursailetarako ezarritako irizpide orokorrak aplikatu izanaren emaitza.
  - "a.30.1" lursaila: ..... V
  - Esparru honetan antolatutako "b.20" tipologiako lursaili dagokienez, eraikuntza-forma da "a.2" tipologiako lursailetarako ezarritako irizpide berak aplikatu izanaren emaitza.
  - Gainerako lursail eraikigarrien kasuan, sestra gainean dauden eraikinen eraikuntzaren profila eta altuera finkatzen dira.

- \* Sestrapean.  
orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitze baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitze baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hirigintza-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.

- c) Gainera, Plan Orokor honen Katalogoan sartutako eraikinei dagokienez, eraikin horien konfigurazio formala euren babesari lotutako zehaztapenak baldintzatuko dute. Zehaztapenak hiriko Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian ezarriko dira.

### B.- Erabiltzeko baldintza orokorrak.

Erabiltzeko baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ezarritako "A.20 zona globalarenak dira.

- C.- "1.1". idatz-zati honetan aurreikusitako finkatze guztiak, Plan Orokor honetan ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuko "29.5.A" art.) horretarako ezarritako termino orokorrean planteatzen direla ulertu behar da.

## A.U. "AO.02" (Jarr.)

1.2.- "E.10/AO.02 – Bide Sistema Orokorra" zona (Azalera: 5.725 m<sup>2</sup>)

Eraikuntza eta erabiltzeko baldintza orokorrak zona global honetarako ("2.1 Hirigintza Arau Orokorra" dokumentua) Plan honetan ezartzen dira orokorrean.

### 2.- Hirigintza-sailkapena.

Esparruko lur guztiak hiri-lurzoru gisa sailkatzen dira.

### 3.- Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

Esparruaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehazten da.

## IV.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

### 1.- Kalifikazio xehatua.

A.- Zonifikazio xehatua mugatzeko eta antolatutako azpizona xehatuen tipologiak zehazteko baldintzak.

Baldintza horiek Arau Partikular hauetako "3. Zonifikazio Xehatua" planoan biltzen dira.

B.- Antolatutako lursailen eraikigarritasun fisikoa.

\* Sestra gainean:

- "a.2" eta "b.20" tipologiako lursailetan, sestra gainea eraikigarritasuna da Arau Partikular hauetan definitutako eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak aplikatu izanaren emaitza.
- "a.30.1" lursaila: ..... 2.230 m<sup>2</sup>(s)
- Gainerako lursail eraikigarrien kasuan, sestra gainea eraikigarritasuna da gaur egungo eraikinen lerroakadurak eta forma (profila eta altuera) aplikatu izanaren emaitza.

\* Sestrapean:

- Oro har, sestrapean, antolamendu xehatuaren emaitzazko espazioetan eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako eraikigarritasun fisikoa, bertan baimendutako izaera horretako eraikuntzei lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorra" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.
- Hain zuzen ere, "e.40.1" (Ikuztegia) lursailerako baimendutako eraikigarritasuna 3.078 m<sup>2</sup>(s) da, sestrapean guztia.

## A.U. "AO.02" (Jarr.)

### C.- Lursailen eraikuntzaren forma arautzen duten baldintzak. Eraikuntzaren solairu-kopurua eta altuera.

- \* Sestra gainean:
  - "a.2" eta "b.20" tipologiako lursailetan eraikuntza-forma da aurreko III. epigrafean ("1.1.A.b" atala" aipatutako irizpide orokorrak aplikatu izanaren emaitza.
  - "a.30.1" lursaila:
    - . Profila: ..... V
    - . Altuera: ..... 16 m.
  - Gainerako lursailetan, bakoitzean gaur egun dauden eraikuntzek definitzen dituzte baldintzak.
- \* Sestrapean: Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazio eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako solairu-kopuru maximoa, kasu bakoitzean baimendutako eraikigarritasunari lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.

### D.- Antolatutako azpizona xehatuak erabiltzeko baldintza partikularrak.

- \* Izaera hori dute Arau Partikular hauetako "Eraikuntzako baldintzak" grafikoetan ezarritako guztiek.
- \* Mugatutako "a.30.1" lursailari dagokionez, Xehetasun Azterlan batean definituko dira lerroak eta sestrak.

### E.- Antolatutako azpizona xehatuak erabiltzeko baldintza partikularrak.

- \* "e.40.1" (Ikuztegia) lursailen egoiliarrentzat baimendutako lurpeko aparkalekuak eta udalaren ekimenez inguruko espazio libreetan egin nahi den etorkizuneko aparkalekuak sarrera komunak edukitzeko neurriak hartuko dira.
- \* Aurreikusitako aparkalekua egin eta gero, "Ikuztegia" lursailaren azalerak erabilera publikoko zortasuna edukiko du eta gaur egungo luzatu egingo da, "Itxasmendi Taldearen" atzeko terrazan.

## 2.- Hiri-lurzoruaren kategorizazioa.

Hirigintza Esparru honetako lurak hiri-lurzoru finkatutzat hartzen dira, baldin eta, eraikigarritasun haztatua handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatu gabe gisa sailkatu behar ez diren.



## A.U. "AO.02" (Jarr.)

### V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Arlo honi dagokionean, Plan Orokor honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuetan ezarritakoa jarraituko da.

Testuinguru horretan, beste hainbaten artean, Plan Orokor honetan aurreikusitako eremu akustikoetan bere integrazioari lotutako baldintzak hartu behar dira kontuan.

### VI.- ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK

Plan Orokor honen Katalogoaren IV. Mailan daude barne hartuta honako eraikin hauek:

- \* Heriz, 1
- \* Heriz, 8
- \* Joan de Garai, 1
- \* Matia, 2
- \* Matia, 3
- \* Matia, 5
- \* Matia, 6
- \* Matia, 18
- \* Matia, 23
- \* Matia, 25
- \* Matia, 32
- \* Matia, 34
- \* Matia, 36
- \* Matia, 38
- \* Matia, 44
- \* Matia, 46
- \* Matia, 48
- \* Matia, 50
- \* Matia, 52
- \* Arantzazuko Andre Mariaren auzunea, 1etik 8ra (CNSA)
- \* Arantzazuko Andre Mariaren auzunea, 9tik 18ra (CNSA)
- \* Arantzazuko Andre Mariaren auzunea, 19tik 29ra (CNSA)
- \* Arantzazuko Andre Mariaren auzunea, 30etik 43ra (CNSA)
- \* Arantzazuko Andre Mariaren auzunea, 45-46-47 (CNSA)
- \* Sukia, 1

Aurreko aurreikuspenen jatorria izapidetzen ari den hiriko Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian dago (behin betiko onarpena: 2009ko uztailaren 3a). Horren inguruan, plan berezi horren behin betiko onarpenaren ondorioak hartu beharko dira kontuan.

Interesa duten beste mota bateko ondasunei (naturalak...) dagokienean, gai honetan sustatu beharreko plangintza bereziaren emaitzak hartu beharko dira kontuan.

## **A.U. "AO.02" (Jarr.)**

### **VII.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA**

#### **1.- Urbanizazio-erregimena.**

"e.40.1" (Ikuztegia) lursailean lurpeko aparkalekua egitearen ondorioz, azalera urbanizatu beharko da. Xede horrekin, obra osagarrien proiektu bat landuko da, eraikuntza-proiektuaz gain.

#### **2.- Gauzatze erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.**

- \* "e.40.1" (Ikuztegia) lursailean proposatutako titulartasun pribatuko lurpeko aparkalekuari dagoen azaleraren urbanizazioa beraren titularrei egotziko zaie.
- \* Erabilerak haztatzeko koefizienteak: Kasu honetan Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gaiaren inguruan ezarritakoa beteko da.


### **VIII.-INGURUMEN ARLOKO NEURRIAK**

Plan honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" dokumentuan adierazitako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira, bai eta bere garapenean sustatu beharreko Udal Ordenantzek zehaztuko dituztenak ere.

### **IX.- GRAFIKOAK**


1. Eraikuntza- eta jabari-baldintzak. "a.2" lursailak

"AO.02 Antigua"



- "Lehen mailako espazioak"
- "Bigarren mailako espazioak"
- "Hirugarren mailako espazioak"
- "Laugarren mailako espazioak"
- "Bosgarren mailako espazioak"
- Finkatzen diren multzo berezien parte diren eraikinak
- Handitzea baimenduta duten eraikin bereziak
- Finkatzen diren eraikin bereziak
- "Behe-solairuan", "behegainean", edo "erdisotoan", "etxadi-patioetan", "terrazetan" eta bestelakoetan baimendutako eraikuntzak
- Lursailtako espazio pribatiboak, "sestra gainean" eraiki ezin direnak
- Lursailtako espazio pribatiboak, "sestra gainean" ezin direnak eta gainazalean "erabilera publikoko" zortasunaren mende daudenak
- Eraikuntza-mailak "a.20 Zabalguneko bizitegiko" eta "a.21 Antzinako zabalguneko bizitegiko" lursaili aplikagarriak
- HIRIGINTZA ESPARRUAK (AU)

1. ERAIKUNTZA ETA JABARI BALDINTZAK  
"a.2" lursailak



1: 2.000 ESKALA



## A.U. "AO.03 APAIZTEGIA" (Antiquo-Ondarreta)

### I.- AZALERA ETA MUGAKETA

Iparraldetik Antiqua auzoko zati lauak mugatzen du eta Lugaritz gainak hegoaldetik. 283.464 m<sup>2</sup>-ko azalera du.

Mendi-hegaletan kokatutako lurak hartzen ditu, bizitegi-erabilerakoak guztiak, eta eraikuntza-morfologia topografiara egokitutako bloke solteek osatzen dute.

### II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

- \* Esparruko eraikuntza-garapena sendotzea, 1995eko Plan Orokorraren Aldaketak ekarritakoa barne hartuta, "AO.03 Apaiztegia" lursailari dagokiona (behin betiko onarpena: 2003/10/14, eta Montpellier lursailaren Barne Erreformako Plan Berezia barne hartuta (behin betiko onarpena: 2006/03/28), lehenengoa garatzean osatutakoa. Biak Plan Orokor honetan baliozkotu dira eta gaur egun gauzatzen ari dira.

Bertan egindako aurreikuspenen artean, zuzkidura-bizitegien eraikin bat eraikitzea aurreikusi da -50 bizitegitarako 2.852 m<sup>2</sup>(s). Horretarako 5.002 m<sup>2</sup>-ko lursail bat aukeratu da.

- \* Bestetik, eta egitura-mailako espazio libreen dimentsioarekin lotuta Plan Orokor honetan hartutako irizpide orokorra aplikatuz, Plan Orokorraren Aldaketan maila horrekin kalifikatutako espazioa espazio libreen sistema orokorretik kanpo uzten da, eta erabilera-mota horren tokiko sisteman bakarrik egongo da.

Era berean, Montpellier Ikastetxe zaharraren lursailaren kalifikazio xehatua aldatu da; ekipamendu-erabileraren barruan sartu da.

- \* Halaber, garrantzi gutxiago duten hainbat espediente baliozkotu dira Plan Orokor honetan. Honakoak:
  - San Rafael eremuko BEPBren aldaketa (behin betiko onarpena: 2001/10/22)
  - Gantxegi Bidearen Xehetasun Azterlana (behin betiko onarpena: 2002/07/18)
  - Gantxegi eremuko BEPBri dagokionez (behin betiko onarpena: 2002/11/29), Plan Orokor honetan egokitu egin da dagokion zonifikazio xehatua, katastroko lursailak kontuan hartuta.
- \* Heriz pasealekuko bihurgunea, 99. zenbakiaren parean geratzen dena, hobetu egin da, aipatutako finkak laga dituen lurak erabiliz.

## A.U. "AO.03" (Jarr.)

### III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala

1.1.- "A.30/ AO.03 – Eraikuntza irekiko bizitegia" zona. (Azalera: 283.464 m<sup>2</sup>)

A.- Eraikuntzako baldintza orokorrak:

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

\* Sestra gainean:

Sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasun arauemailea eginak eta baliozkotuta dauden eraikinen gaur egungo formaren eta Arau Partikular hauetan (IV. Epigrafea) baimendutako berrien emaitzazkoa izango da.

\* Sestrapean:

Zona global osoan baimendutako gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna, bertan sestrapean baimendutako irabazizko izaerako eraikuntza guztiei lotzen zaie, orokorrean ezarritako irizpideekin eta, horri lotuta, Plan Orokor honetako "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) ezarritako irizpideekin bat etorrita.

b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak:

\* Sestra gainean:

- Irizpide orokorra: oro har, eta "a.40" tipologiako lursailetakoa eraikuntzekin lotutako ezaugarrien kalterik gabe, baldintza horiek plangintza baliozkotuak edo, hala badagokio, mugatutako lursail bakoitzean dagoen eraikuntzak definitzen ditu.
- "a.40 Garapen baxuko bizitegia" tipologiako lursailak:
  - . Gehieneko profila: IV.
  - . Eraikuntzaren gehieneko altuera: 14,00 m.
  - . Aldez aurretik dauden eta baliozkotu diren eraikuntzak, aipatutako parametroak gainditzen dituzten formazko parametroak dituztenak, finkatzen dira, gaur egun dituzten ezaugarriei.

\* Sestrapean:

orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitze baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitze baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hirigintza-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.

B.- Erabiltzeko baldintza orokorrak.

a) Erabiltzeko baldintza orokorrak dira "A.30 Eraikuntza irekiko bizitegia" tipologiako zona globalerako Plan Orokor honetan orokorrean ezarritakoak.

## A.U. "AO.03" (Jarr.)

b) 5.002 m<sup>2</sup>-ko azalera duen lursail bat antolatuko da, zuzkidura-bizitegiak kokatzeko.

C.- "1.1". idatz-zati honetan aurreikusitako finkatze guztiak, Plan Orokor honetan ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuko "29.5.A" art.) horretarako ezarritako termino orokorretan planteatzen direla ulertu behar da.

### 2.- Hirigintza-sailkapena.

Esparruko lur guztiak hiri-lurzoru gisa sailkatzen dira.

### 3.- Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

Baliozkotu diren plangintza-espedienteetako antolamendu xehatua finkatzen da (II. epigrafean aipatu dira espediente guztiak).

Esparruaren gainerakoari dagokionez, antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehazten da.

## IV.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

### 1.- Kalifikazio xehatua.

A.- Zonifikazio xehatua mugatzeko eta antolatutako azpizona xehatuen tipologiak zehazteko baldintzak.

Baldintza horiek Arau Partikular hauetako "3. Zonifikazio Xehatua" planoan biltzen dira. Dena den, baldintza horien jatorria aipatutako garapen-plangintza baliozkotuan dago. Horrenbestez, bat etortzen ez badira, azken honetan xedatutakoa beteko da.

B.- Antolatutako lursailen eraikigarritasun fisikoa.

\* Sestra gainean:

- "a.40.1" lursaila (Jauregi, 1) ..... 0,40 m<sup>2</sup>(s)/m<sup>2</sup> ekarpen gisa jarritako lursaila
- "a.40.2" lursaila (Heriz, 99) ..... Gaur egungo eraikigarritasuna 35 m<sup>2</sup>(s) areagotzeko baimena ematen da.
- Gainerako lursailen eraikigarritasun fisikoa izango da baliozkotutako plangintzan definitutakoa edo lursail horietako bakoitzean gaur egun dauden finkatutako eraikuntzen lerrokaduren eta formaren (solairu-kopurua eta altuera) emaitzazkoa izango.

\* Sestraperan:

Sestraperan, antolamendu xehatuaren emaitzazko espazioetan eta lursail bakoitzean sestraperan baimendutako eraikigarritasun fisikoa, bertan baimendutako izaera horretako eraikuntzei lotutakoa da, Plan Orokor honetako

## A.U. "AO.03" (Jarr.)

"2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrita.

### C.- Lursailen eraikuntzaren forma arautzen duten baldintzak. Eraikuntzaren solairu-kopurua eta altuera.

- \* Sestra gainean:  
Baldintza horiek Arau Partikular hauetan (aurreko III. epigrafeko "1.1.A" atalean) ezarritakoak dira.
- \* Sestrapean: Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazio eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako solairu-kopuru maximoa, kasu bakoitzean baimendutako eraikigarritasunari lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrita.
- \* Heriz pasealekuko 21etik 75era arteko zenbakietan kokatutako eraikuntzak eraisteko eta ordezkatzeko jarduerak honako baldintza hauetan garatuko dira:
  - Osatutako hiru multzoetan banaka egingo dira, hurrenez hurren: 21etik 37ra arteko zenbakietako eraikuntzak, biak barne, 39tik 57ra arteko zenbakietako eraikuntzak, biak barne, eta 59tik 75era arteko zenbakietako eraikuntzak, biak barne.
  - Ondorioz, eraikuntza-multzo bakoitzak bere eraikuntza-proiektua edukiko du.
  - Eraikuntza-proiektu bakoitzean zehaztuko dira, kasuan kasu, esku hartzeko irizpideak (profila, altuera, fatxadaren osaera, materialak, eta abar). Zentzu horretan, multzo bakoitzari tratamendu bateratua eta homogeneoa emateko soluzio egokiak erabakiko dira.
  - Ez da eraikinez eraikin ordezkapenak egiteko esku-hartzerik onartuko, eraikin bat eraisteko ezinbesteko beharra justifikatzen den kasuetan izan ezik. Kasu horretan, eraikina ordezkatzeko landuko den eraikuntza-proiektuan justifikatuko da proiektatu den eraikuntza berria ondo eta zuzen egokitzen dela kokatzen den eraikuntza-multzora.

### D.- Antolatutako azpizona xehatuak erabiltzeko baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetan, oro har, esparruan antolatutako azpizona xehatuetakoko bakoitzerako ezarri dira baldintza horiek.

## 2.- Hiri-lurzorua kategorizatzea.

Hirigintza Esparru honetako lurrak hiri-lurzoru finkatutzat hartzen dira, baldin eta, eraikigarritasun haztatua handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatu gabe gisa sailkatu behar ez diren.

## **A.U. "AO.03" (Jarr.)**

### **V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK**

Arlo honi dagokionean, Plan Orokor honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuetan ezarritakoa jarraituko da.

Testuinguru horretan, beste hainbaten artean, Plan Orokor honetan aurreikusitako eremu akustikoetan bere integrazioari lotutako baldintzak hartu behar dira kontuan.

### **VI.- ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK**

Esparruak ez du katalogatzeko elementurik.

Aurreko aurreikuspenaren jatorria izapidetzen ari den hiriko Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian dago (behin betiko onarpena: 2009ko uztailaren 3a). Horren inguruan, plan berezi horren behin betiko onarpenaren ondorioak hartu beharko dira kontuan.

Interesa duten beste mota bateko ondasunei (naturalak...) dagokienean, gai honetan sustatu beharreko plangintza bereziaren emaitzak hartu beharko dira kontuan.

### **VII.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA**

- \* Mugatutako "a.40.1" (Jauregi, 1) lursailean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko, gaur egun bide-sistamarako erabiltzen den luraren jabari publikoaren lagapena lortu behar da.
- \* "a.40.2" (Heriz, 99) lursailean eraikigarritasuna areagotzeko, gaur egun hornikuntza-jardueren esparruan indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak hartuko dira kontuan. Zentzu horretan, kasu honetan bide-sistamarako erabiliko den lurzoru berriaren hornikuntza egiten dela ulertuko da.
- \* Erabileren haztatze-koefizienteei eta hauen aplikazioari dagokienean, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gaiari lotuta ezarritakoa jarraituko da.

### **VIII.-INGURUMEN ARLOKO NEURRIAK**

Plan honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" dokumentuan adierazitako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira, bai eta bere garapenean sustatu beharreko Udal Ordenantzak zehaztuko dituztenak ere.

### **IX.- GRAFIKOAK**

Arau Partikular hauetan ez da grafikorik sartu.



## A.U. "AO.04 TXANTXA-ERREKA" (Antiguo-Ondarreta)

### I.- AZALERA ETA MUGAKETA

Nagusiki aurreko mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadan gauzatuta, bizitegi-erabilerarako etxadi itxian eraikuntza-garapen baten berezko ezaugarriak ditu.

134.443 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta Pio Baroja pasealekuaren ardatza eta bertatik pasealekuaren bi alboetara geratzen diren bi lurzoru-poltsak barne hartzen ditu.

### II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Erabat garatuta dago esparrua. Horrenbestez, ezaugarri morfologikoak sendotzea proposatu da, eta ez da gaur egungo eraikigarritasuna areagotzea aurreikusi.

### III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala

1.1.- "A.30/ AO.04 – Eraikuntza irekiko bizitegia" zona. (Azalera: 114.837 m<sup>2</sup>)

A.- Eraikuntzako baldintza orokorrak:

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

- \* Sestra gainean:  
Sestra gainea hirigintza-eraikigarritasun arauemailea eginak eta finkatuta dauden eraikinen gaur egungo formaren emaitzazkoa izango da.
- \* Sestrapean.  
Zona global osoan baimendutako gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna, bertan sestrapean baimendutako irabazizko izaerako eraikuntza guztiei lotzen zaie, orokorrean ezarritako irizpideekin eta, horri lotuta, Plan Orokor honetako "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) ezarritako irizpideekin bat etorrira.

b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak.

- \* Sestra gainean.  
Sestra gainea dauden eraikinen eraikuntzaren profila eta altuera finkatzen dira.
- \* Sestrapean:  
orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitze baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitze baimena eman da.

## A.U. "AO.04" (Jarr.)

baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hirigintza-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestraperan baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.

B.- Erabiltzeko baldintza orokorrak.

Erabiltzeko baldintza orokorrak dira "A.30 Eraikuntza irekiko bizitegia" tipologiako zona globalerako Plan Orokor honetan orokorrean ezarritakoak.

1.2.- "E.10/AO.04 – Bide Sistema Orokorra" zona (Azalera: 19.606 m<sup>2</sup>)

Eraikuntza eta erabiltzeko baldintza orokorrak zona global honetarako ("2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) Plan honetan ezartzen dira orokorrean.

### 2.- Hirigintza-sailkapena.

Esparruko lur guztiak hiri-lurzoruz gisa sailkatzen dira.

### 3.- Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

Esparruaren antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehazten da.

## IV.- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

### 1.- Kalifikazio xehatua.

A.- Zonifikazio xehatua mugatzeko eta antolatutako azpizona xehatuen tipologiak zehazteko baldintzak.

Baldintza horiek Arau Partikular hauetako "3. Zonifikazio Xehatua" planoan biltzen dira.

B.- Antolatutako lursailen eraikigarritasun fisikoa.

\* Sestra gainean:  
Lursail bakoitzaren eraikigarritasun fisikoa izango da lursail horietako bakoitzean gaur egun dauden finkatutako eraikuntzen lerrokaduren eta formaren (solairu-kopurua eta altuera) emaitzazkoa izango.

\* Sestraperan:  
Sestraperan, antolamendu xehatuaren emaitzazko espazioetan eta lursail bakoitzean sestraperan baimendutako eraikigarritasun fisikoa, bertan baimendutako izaera horretako eraikuntzei lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrita.

## A.U. "AO.04" (Jarr.)

### C.- Lursailen eraikuntzaren forma arautzen duten baldintzak. Eraikuntzaren solairu-kopurua eta altuera.

- \* Sestra gainean: baldintzak mugatutako lursail bakoitzak duen eraikuntzak definitutakoak dira.
- \* Sestrapean: Antolamendu xehatuaren emaitzazko espazio eta lursail bakoitzean sestrapean baimendutako solairu-kopuru maximoa, kasu bakoitzean baimendutako eraikigarritasunari lotutakoa da, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) horri lotuta ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira.

### D.- Antolatutako azpizona xehatuak erabiltzeko baldintza partikularrak.

Plan Orokor honetan, oro har, esparruan antolatutako azpizona xehatuetako bakoitzerako ezarri dira baldintza horiek.

## 2.- Hiri-lurzoruaren kategorizazioa.

Hirigintza Esparru honetako lurak hiri-lurzoru finkatutzat hartzen dira, baldin eta, eraikigarritasun haztatua handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatu gabe gisa sailkatu behar ez diren.

## V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Arlo honi dagokionean, Plan Orokor honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" eta "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuetan ezarritakoa jarraituko da.

Testuinguru horretan, beste hainbaten artean, Plan Orokor honetan aurreikusitako eremu akustikoetan bere integrazioari lotutako baldintzak hartu behar dira kontuan.

## VI.- ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK

Esparruak ez du katalogatzeko elementurik.

Aurreko aurreikuspenaren jatorria izapidetzen ari den hiriko Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian dago (behin betiko onarpena: 2009ko uztailaren 3a). Horren inguruan, plan berezi horren behin betiko onarpenaren ondorioak hartu beharko dira kontuan.

Interesa duten beste mota bateko ondasunei (naturalak...) dagokienean, gai honetan sustatu beharreko plangintza bereziaren emaitzak hartu beharko dira kontuan.

## **A.U. "AO.04" (Jarr.)**

### **VII.- GAUZATZEKO BERARIAZKO ERREGIMENA**

Erabileren haztatze-koefizienteei eta hauen aplikazioari dagokienean, Plan Orokor honetako "2.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gaiari lotuta ezarritakoa jarraituko da.

### **VIII.-INGURUMEN ARLOKO NEURRIAK**

Plan honetako "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" dokumentuan adierazitako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak aplikatuko dira, bai eta bere garapenean sustatu beharreko Udal Ordenantzek zehaztuko dituztenak ere.

### **IX.- GRAFIKOAK**

Arau Partikular hauetan ez da grafikorik sartu.

## A.U. "AO.05 LIZARRITURRI" (Antigu-Ondarreta)

### I.- AZALERA ETA MUGAKETA

Gehien bat XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen erdialdean garatu zen esparrua. Zarautz hiribidean kokatutako bloke linealek osatzen dute eta antzina inguru hartan zegoen Lizarriturri eta Rezola fabrikako langileentzako egin ziren.

15.168 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta Zarautz hiribidearen mendebaldeko zatian dago kokatuta, Abanco taldera dagoen igoeraren (hegoaldean) eta Benta Berriren (iparraldean) artean.

### II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Gaur egun esparruak dituen hirigintza-baldintzak finkatzea. Ez da hazkunderik aurreikusi gaur egungo eraikigarritasunean, azpieraikitako "a.2 Zabalguneko bizitegi" lursailetan izan ezik, eta sestraperan baimendutako eraikigarritasunarekin erlazionatutakoak kanpo utzita.

### III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA

#### 1. Kalifikazio globala

1.1.- "A.30/ AO.05 – Eraikuntza irekiko bizitegia" zona. (Azalera: 15.168 m<sup>2</sup>)

A.- Eraikuntzako baldintza orokorrak:

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

\* Sestra gainean.

- "a.2 Zabalguneko bizitegi" tipologiako lursailetan, sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasun arauemailea da Arau Partikular hauetan definitutako eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak aplikatu izanaren emaitza.
- Gainerako lursail eraikigarrien kasuan, sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna eginak eta finkatuta dauden eraikinen gaur egungo formaren emaitzazkoa izango da.

\* Sestraperan.

Zona global osoan baimendutako gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna, bertan sestraperan baimendutako irabazizko izaerako eraikuntza guztiei lotzen zaie, orokorrean ezarritako irizpideekin eta, horri lotuta, Plan Orokor honetako "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan (30. artikulua) ezarritako irizpideekin bat etorrira.

## A.U. "AO.05" (Jarr.)

- b) Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak.
- \* Sestra gainean.
    - "a.2 Zabalguneko bizitegi" tipologiako lursailetan eraikuntzaren forma Hirigintza Arau Orokorretan mota horretako lursailetarako irizpide orokorren aplikazioaren emaitzazkoa izango da.
    - Gainerako lursail eraikigarrietan, gaur egun sestra gainean dauden eraikuntzen altuera eta profila sendotzen dira.
  - \* Sestrapean.

orokorrean, sestrapean lau (4) solairu eraikitze baimena eman da. Gainera, aipatutakoa baino solairu-kopuru handiagoa eraikitze baimentzen eta/edo finkatzen da. Hori hala egingo da, Plan Orokor hau indarrean sartu aurretik eta finkatuta dagoen indarreko hirigintza-plangintzan horrela aurreikusten bada, edo sestrapean baimendutako eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa bada.
- c) Gainera, Plan Orokor honen Katalogoan sartutako eraikinei dagokienean, eraikin horien konfigurazio formala euren babesari lotutako zehaztapenak baldintzatuko dute. Zehaztapenak hiriko Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian ezarriko dira.

### B.- Erabiltzeko baldintza orokorrak.

Erabiltzeko baldintza orokorrak dira "A.30 Eraikuntza irekiko bizitegia" tipologiako zona globalerako Plan Orokor honetan orokorrean ezarritakoak.

